

Eref.- FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza

GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, 2021EKO ETA 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZEI DAGOZKIEN HAUTAPROBEN DEIALDIA ONESTEARI BURUZKOA, KATEGORIA HAUETARAKO: SUKALDARIA (LH2), ETXEBIZITZAKO SUKALDARI-ZERBITZARIA, ERIZAINA, GIZARTE-LANGILEA ETA FISIOTERAPEUTA; ETA HORIEK GAUZATZEKO EGUTEGIA.

IKUSIZ.- 2021/12/23an eta 2022/12/19an, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak Foru Erakundearen 2021. eta 2022. urteetarako lan-eskaintza publikoak onartzea xedatu zuen; eskaintza horiek, hurrenez hurren, 2021eko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (250. zk.) eta 2022ko abenduaren 30eko 248. zenbakian argitaratu ziren. Era berean, 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzako zenbait plaza baliogabetzea xedatu zen; erabaki hori 2022ko maiatzaren 30eko BAOn argitaratu zen (247. zk.). Eskaintza horietan jasotzen dira, besteak beste, LH2ko sukaldariaren plaza bat (1), etxebizitzako sukaldari-zerbitzariaren zazpi (7) plaza, erizainaren zazpi (7) plaza, gizarte-langilearen sei (6) plaza eta fisioterapeutaren hiru (3) plaza.

Hori esanda, adierazitako lanpostu-kategorietarako deialdi baterakoa eta bateratua denez, zuzen burutzeko gauzatze-egutegi egokia behar da, eta honela zehazten da:

Kategoria	Argitalpena BOEn	Lehenengo ariketa
LH2ko sukaldaria	2023ko azaroa	2023ko abendua
Etxebizitzako sukaldari-zerbitzaria	2023ko azaroa	2024ko lehen hiruhilekoa
Erizaina	2023ko azaroa	2024ko lehen hiruhilekoa
Gizarte-langilea	2023ko azaroa	2024ko lehen hiruhilekoa
Fisioterapeuta	2023ko azaroa	2024ko lehen hiruhilekoa

Deialdi hori, zerrendatutako kategoria bakoitzaren oinarri espezifikoekin batera, GUFEn ordezkariak duten sindikatuarekin negoziatu zen, erakunde honetako negoziatio-mahaiaren bileretan, apirilaren 26an, maiatzaren 31n, uztailaren 12an eta irailaren 13an. Bilera horiek bat datoz 2023ko 4., 5., 6. eta 7. zenbakietan izapidetutako aktekin.

OINARRIA.- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldatzeari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 FORU ARAUAREN 5. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, GUFEn Gobernu Batzordeari dagokio, besteak beste, bere langileak hautatzeko proben oinarriak onartzea.



Azaldutakoa kontuan hartuta eta merezimenduz, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio honako

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.– Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzekin bat etorriz –Gobernu Batzordeak 2021eko abenduaren 23an eta 2022ko abenduaren 19an hartutako erabakien bidez onartuak–, LH2ko sukaldari, etxebizitzako sukaldari-zerbitzari, erizain, gizarte-langile eta fisioterapeutaren plazak eta lanpostuak betetzeko hautapoben deialdia egitea. Lanpostu horiek dagozkien eranskinetan zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Deialdi partikularrak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarri horiek, jasota gera daitezten, eranskin gisa gehitu zaizkio erabaki honi.

Hirugarrena.– Oinarriak osorik argitaratzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean –laburbilduta–, GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian.

Laugarrena.– GUFeko gerentea gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak har ditzan.

Bilbon, 2023ko urriaren 19an

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendia